



EEBB: lehendakaritzarako hauteskundeak

Kongresuko ohitura sendoak apurtu dituzte gutxiengoek eta emakumeek

Emakumezko beltz bat eta indigena bat aukeratu dituzte senadore lehen aldiz historian

Demokratek Washingtoneko Kongresuko bi ganbaratan zuten gehiengoari eutsiko ziotela iragarrita zegoen aurrez. Jende gutxi espero zezakeen ordea, emakumeek eta gutxiengoek Lehendakaritzarako hauteskunde hauetan historia egingo zutenik.

JONE LARRAÑAGA / DONOSTIA

Etxe Zuriak gain Alderdi Demokratik Senatu eta Kongresurako hauteskundeak ere irabazi ditu. Clintonen alderdiak azken 40 urteetan Kongresuan izan duen kontrolari eutsi egin dio, errepublikarrek Kongresuan zazpi ordezkari irabazi dituzten arren.

Inkestek garaipen honen berri emana zuten aurrez. Kongresuaren ohitura sendoak aldaraziko zituen gertakariak izango zirela ordea, gutxiok iragarri ahal izan zuten.

Ehun senadore artean hiru emakumezko baino ez dituen Senatuen heren bat berritzearekin, zazpi emakume eseriko dira datorren legegintzaldian Goi



Carol Moseley Braun Senatuan sartu den lehen emakume beltza da.

EPA

Ganbarako eserlekuetan. Historiaren jarduna hautsiz gainera, beltza izango da hauetariko bat. Carol Moseley Braunek Illinoisko estatua ordezkatu du Alderdi Demokratatik.

Emakumeek hauteskunde hauetariko prestatu duten «iraultza», Clarence Thomasen auziak eragin du zuzenean, adituek iritzi diotenez. Anita Hillek gehikeria

sexualaz salatu zuen arren Auzitegi Gorenerako hautatu zuten epailea eta gertakari honek guztiz amorratu zuen emakumea.

Errepublikarrek Abortoaren Legeari egin nahi zizkioten murrizketek ere zuzenean eragin dute emakumeengan, beraien eskubideen aurka jokatzeko delatza baitute.

HISTORIAKO LEHEN SENADORE INDIARRA

Estatu Batuetan indar handia duten ohiturekin hautsi duena ordea, ez da emakumezkoen presentziaren indartzea bakarrik izan. Gutxiengoek ere nabarmen hobetu dituzte euren postuak. 1992ko hauteskunde hauek izan

dira baita ere, historian lehen aldiz indigena bati Kongresuko Goi Ganbaran sartzeko aukera eman diotenak. Ben Nighthorse Campbell 'Gaueko Zaldiak' beteko du aurrerantzean indiar batek orain artean izan ez duen senadore eserlekua.

Astearteko hauteskundeetatik irtendako Kongresu berrian ere ordezkari garrantzitsua lortu dute hispanoek. «Bushen Administrazioak ez zuen gure arazoei sentikortasun apurrik erakutsi. Garaipen honek egunsenti berria ekarriko digu hispanoei» adierazi zuen Nydia Velazquez New Yorkeko barrutiak Kongresurako hautatu duen lehen ordezkari puertorricorarik.

Washingtonek ezezkoa eman dio heriotza zigorra ezartzeari

WASHINGTON

Washington EEBBetako hiriburuko 625.000 botoemailetatik % 67k heriotza zigorra gaitzetsi zuten, lehendakaria eta Kongresua aukeratzeko egindako hauteskundeekin batera egin zen erreferendumean. Kongresuak berak deitutako erreferenduma izan zen. Richard Selby senadore demokrata izan zen herri bozketa hau bultzatu zuena, duela bi hilabete bere laguntzaile bat hil zutenean Kongresuko egoitzatik gertu.

Washingtoneko biztanleen % 33 heriotza zigorraren alde agertu ziren, Ipar Amerikako hiriburuan azken urteotan izan den delinkuentzia eta homizidioen gorakada ikaragarria gerarazteko

neurri bakartzat jotzen baitzuten. Washingtonek 'krimenaren hiriburua' izena lortu du prentsan, urtero dagoen homizidio tasa handiarengatik. Homizidioen igoerak droga trafikarekin zerkusirik duela uste du Poliziak.

Politiko eta buruzagi erlijioso askok heriotza zigorra ezartzeari kontrako botoa eskatu zuten, erreferenduma herriaren erabakiak eskatutakoa izan behar zuela pentsatzen zutelako eta ez Kongresuak ezarritakoa. Beste batzuek, berriz, arrazistatzat jo zituzten kongresistak, heriotza zigorra % 80 beltzak diren lurraldean ezarri nahi izateagatik. Washingtonen 1957an exekutatu zuten azken pertsona eta 1981ean kendu zuten heriotza zigorra legediatik.

ERREAKZIOAK

■ **ISRAEL:** Yitzhak Rabin Israelen lehen ministroak telegrama bana bidali zien Bushi eta Clintoni, emandako laguntza ekonomiko eta militarra eskertzeko lehenari eta zoriontzeko bigarrenari. Biak Ekialde Erdiko Bake Konferentzia bultzatzearen alde daudela esan zuen Simon Perez Kanpo Arazoetarako ministroak. Yitzhak Shamir presidente ohia, berriz, pozik azaldu zen Bushek galdu egin duela.

■ **IRAK:** dantzatzu eta abestuz kalean ospatu zuten biztanleek Bushen porrota, Saddam Hussein Irakeko presidentearen aldeko oihuak botatzen zituzten bitartean. Dena den, 'Al Jumuriya' Gobernuoko egunkariaren arabera, «egunetik egunera kolorez aldatzen den kamaleoia» da Bill Clinton.

■ **SIRIA:** Faruk Al Txara Kanpo Arazoetarako ministroak azaldu zenez, Clintonen hautaketak «eragin negatiboak» izango ditu Ekialde Hurbileko bake prozesuan «nahiz eta aldaketa handirik ez dugun espero». Bere esanetan, bake prozesuaren bitartekari zuzena izan liteke Clinton «EEB-Bek hil edo biziko interesak baitituzte zona honetan» baina politika orekatua egiteko gomendioa egin zion.

■ **PALESTINA:** bake elkarrizketen buruzko EEBBen politika aldatzeko itxaropenik ez dutela esan zuen Hannan Axraui bozeramaile palestinarrik Clintonen garaipena baloratzean. «Bere kanpainan zehar, politika aldatzeko asmorik ez duela garbi azaldu zuen Clintonek» adierazi zuen.

■ **EGIPTO:** Clintonen garaipenari munduko historiaren «une erabakiorra» izan dela iritzi zion Hosni Mubarak presidenteari. «Segurtasuna emateaz gain» bakea sendotzeko prozesuan EEBBek ahaleginak egiten jarraituko dutela uste du Mubarak. Estatuaren arteko kooperazioa bere agintaldian jarri zela martxan eskertzeko karta bidali zion Bushi.

■ **LIBANO:** «EEBBek Ekialde Hurbileko bake prozesuan parte hartzearen aurkakoa da Clinton» esan zuen Gobernuko ordezkari batek. Izan ere, Libanoko herritar gehienek uste dute Clintonek Bushek baino gehiago babesten duela Israel. Simon Karam Libanoko enbaxadoreak EEBBetan bake prozesuarekin aurrera jarraituko duela Clintonek adierazi zuen.

■ **LIBIA:** hauteskundeen emaitza Bushen politikaren kontrako «iraultza» izan dela agertu zuen Muammar Gadafi presidenteari. «Estatubatuarrek azkenean arnasa hartu ahal izango dute eta Bushen politikaren zama gainetik kendu» esan zuen. Bere ustez, eremu demokrata «herriarentzat aliantza natural eta historikoa da askatasun eta duintasunaren aldeko borrokan».

**BIZITETXEAZ
HOGAR Y CONFORT**

AZAROA
5 / 8
NOVIEMBRE
1.992

Udaletxeko
Erakusketa
Aretoa

Salón
Municipal de
Exposiciones